

## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2017ko uztailaren 6ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Etxeko hondakinak biltzeko lehiaketa:** Aurkeztu diren eskaintzen berri eman da. Bi dira: Asaser-Altuna y Uria; Enviser. Balorazio kronograma aurkeztu da.
- **Hondakinen inguruko balantzea 2012-2016:** Etxeko hondakinen bilketak azken 5 urteotan eta 9 udalerrietan izan duen bilakaeraren azterketaren aurrerapena aurkeztu da, etorkizuneko balantzeetarako erreferentzia-puntu gisa eta hobekuntzarako helburuak finkatzeko ekintzei begira.
- **Hondakinen udal Ordenantza:** Eskualdeko udalerrietako zerbitzuaren ezaugarrietara egokitutako zirriborroa eta lan-egutegia aurkeztu dira.
- **Hondakinak batzeko zerbitzuaren araudia:** Araudi-proposamena prestatzea proposatu da, eskualdeko zerbitzu berriaren funtzionamendurako arau argi eta adostuak izateko. Batzordeak balorazioa adostu du, edukiontzi marroi baten kolpeak ibilgailu batean eragindako kalteengatik aurkeztutako ondare-erreklamazioaren inguruan.
- **Oliorako edukiontzien erosketa:** Jakinarazi da gaur egun instalatuta dauden 34 edukiontziak erosteko aukera dagoela. Erabaki da: 1) Eskaintza formala aurkeztea enpresa jabeari; 2) Edukiontzien gaur egungo egoeraren tasazioa egitea, konponketa-beharrizanei dagokienez.
- **Organikoa bereizteko esperientzia, Urduñako jaietan:** Udaleko ordezkariak jaietan hondakinak gaika batzearen inguruko esperientziaren eta balorazioaren berri eman du: plastikozko edalontzi berrerabilgarriak, baxera konpostagarria, zati organikoa bazkari herrikoietan eta ekitaldi gastronomikoetan, eta txosnetarako edukiontziak. 2018ko kudeaketa planean erosketarako edota komunikaziorako eskualde-ekintzak sartzeko aukera planteatu da.
- **Plangintza energetikoa:** Oniritzia eman zaio ekintzen eta lehentasunen ordena egingo duen eredu edo estrategia energetikoa izateko interesaren inguruko jakinarazpenari, bai eta plangintza energetikorako laguntzak izatearen komenientziari ere.
- **Eskualdeko Bulegoaren kokapena:** Jakinarazi da aukera dagoela Jasangarritasunaren Eskualdeko Bulegoak kokapen berria izan dezan. Eskaintzak aztertzea eta eskaintza zehatz baten inguruko erabakia hartzea adostu da.
- **Informazioak:** Poltsa konpostagarrietarako lehiaketa; Udalsarea 21aren komunikazioa e-mugiri buruz; Udalsarea 21aren Batzorde exekutiboa; URA formakuntza saioa; Berringurumena Egitasmoa; EEEn laguntza-paketea; Energia Ministerioaren laguntzak, karbono gutxiko ekonomiari lekua egingo dioten toki erakundeen proiektu bereziei; Jasotako eskaintzak.
- **Hurrengo Batzordearen bilera:** Uztailaren 27, osteguna, 9etatik 11 arte.